# ARRASATE PRESS

Arrasate 1990eko Irailak 14, 76. zenbakia
Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



MONDRA
90-91 denboraldia

**JEAN LOUIS DAVANT: "Gure kezka euskararen etorkizuna da"**

# Lehengo gaztaia, izen berria

**Udala Koop. E.**




MODELO
BERRI-BERRIA
Ford
MUGARRI

# Zugandik hurbilena

ATB

ARRASATE TELEBISTA

Kaixo lagunok!

Hemen gaituzue berriro ere, indarberrituta, denboraldi berri honetan zeuei programarik erakargarri eta interesgarrienak eskaintzeko asmoz. Hasi gara lanean. Gogoratu: arratsaldez (astelehen, asteazken eta ostiraletan) edo eguerdiz (astearte, ostegun eta larunbatetan), zeure telebista, Arrasate Telebista.

**ARRASATE PRESS**
**ASTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala
**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal
**Erredakzioa:** Beñardo Kortabarria, Arantzazu Loidi
**Publizitatea eta harpidetzak:** Josune Biteri, Tfnoa: 77 08 15
**Maketazioa:** Goio Arana
**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren
**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. E.
**Banaketa arduraduna:** J. L. Arejolaleiba
**Copyright:** ARRASATE PRESS
**Tirada:** 7.000 ale
**Lege-Gordailua:** 1124/88
**ISSN:** 0214-4654
**Frankeo kontzertatua:** 37-60


**ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Cristalezko begiaren optikatik

Galiziar idazle eta pentsalari bikaina zen Castelaoren lehen liburua euskaratu zenean, irarkola-huts bategatik "Cristalezko begia" titulatu zuten, oker ez banago, Kren ordez C hizkia azalduz.

Gaur nik izenburutzat aukeratutakoak, ordea, ez du zerikusirik galiziar abertzaletasunaren zuzpertzaile handi harekin. Beste "Cristal"-i buruz ari naiz, dagoeneko irakurleak asmatu ahal izan duen bezala: telebistan hain ospetsu bihurtu den saioari buruz, alegia.

Cristal horren sindromeak kutsatutata omen, oporretatik bueltan aurkitu gara oharkabez. Eta "ikasturte" berri bati ekin diogu, atzean utzitako jai giroaz umezurtz...eta hurrengoak noiz iritsiko zain.

Baina etxetik kanpo eman dugun hilabetean gauza asko gertatu da munduan eta gu -hondartzako guardasola azpian edo erreka zuloko kerizpean irabazitako behatokitik gertaera horien aztertzaile kritiko bezain zentzudun bilakatu ei gara. Eta "culebron" horren bi kapituluren artean, egunkari, irrati eta telebistak zekarzkiguten albisteak galbahetik pasa eta gure bertsioa eskaintzeko prest azaldu gara.

Betiko joan den abuztuak, besteak beste, urriaren 28rako hauteskunde deialdia, Errealaren fitxaketa sonatua (Atkinson "Baltzategi"), Izquierdo eta Cabanillas sendien arteko liskar odoltsua, Ertzaintzaren hedapenerako plangintza eta Persiar Golkoaren krisia ekarri zizkigun. Gehiegi, nonbait, tripaz gora eta lasai egon nahi genuen guztiontzat. Baina, dirudienez, gure izpirituak ez du erabateko atsedenik nahi... Batez ere golkoko jazoerek bilakatu gaitutze azterle eta goi mailako gainera! Ia hilabete osoaz baliaturik, gure buruak Sadam Hussein ala Bushekin identifikatzeko beta izan dugu. Irakiar lurraldeak etxekoak balira bezala ezagutzen ditugu. Onetsi egin dugu (ala ez) kuwaitiar madarikatuen (ala errukarrien) aurkako erasoa. Ontzat eman dugu (ala ez) amerikar salbatzaileen (ala inperialisten) erantzuna. Ulertu egin dugu gehienek petrolioaren igoera. Errefusatu egin dugu (denok) gasolinarena.

Laburki: Cristalezko begiaren laguntzaz esperientzia aberasgarria izan dugu abuztuan.

*Josemari Velez de Mendizabal*


**UGARAN**
jatetxea
Garagartza auzoa - t/797858 Arrasate

**enpresa bazkariak eta famili bilerak**




Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HiRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak
Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

Monte
taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

* Diagnostikoa - Orientazioa
* Estimulazio goiztiarra
* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
* Logopedia
* Laguntza terapia
* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

## Aretxabaleta - Udalekuak 90

Umea ekintza horretara lehenengo aldiz bialtzeko aukera izan dugun gurasoak gara. Erabakia hartu baino lehen, hiru gaiok zer pentsa eman ziguten, alegia, monitoreek euskara maila ona ba ote zuten, adinez helduak ote ziren eta monitoretzan jakitunak eta jaioak ba ote ziren. Ardura hau arintzeko informaziorik izan barik, baietza eman genion udaletxeko kultur zuzpertzaileak eskainitako plangintzari.

Uztaila joan zen. Umeak ikaragarri gozatu zuen. Bikaina izan zen udaletxeko kultur zuzpertzailearen lana, bai hasiera bateko antolamenduak eskatzen zuen alorrean, bai uztailean zehar denboraz gurasook jasotzen genuen informazioari dagokionez. Zorionik beroenak! Adore izan dezala aurrerantzean ere ekiteko, beti propagandarik erakargarriena udalekuen kalitatean datzala kontutan izanik.

*Atxabaltar batek*

## Argentinatik

Nere adiskide ona Agur:

Hemendik Argentinatik bidaltzen dotsuet arrasatear abertzeleoi nere eskerrik beroenak Arrasate Press ateratzen dozuelako, bai garbi ikusten dot zuen maitasuna gure euskera zaharrarentzat.

Badakizute nire aita zana Andoni Egidazu arrasatearra zala. Bai, Udala auzoan jaio zan eta Arrasaten lana egin zun.- 1936 greba madarikatua arte. Handik ospa egin eben Elgetara eta han jaio nitzan ni.

Gu hemen txarto bizi gara, Argentina txarto dagoelako.

Hemen Buenos Airesen euskaldunok badogu Euskal Etxea (batzokia) *"Laurak bat"* dauko izena eta 120 urte daukaz.

Batzoki hontan egin dabe Euskal kultur etxea (Euzketxe). Zuzendaria Niko Igoain da - gizon jakintsua eta abertzale haundia. Beste gizon bat bada Eusketxen asko balio duna Iruxotar Anderen da.

Iruxotar Ander da Imanol Iruxoren anaia. Lizarra (Nafarroa da beren jaoterria. Abertzaleak dira gizon honek. Editorial Vasca Ekin egin zun eta badabil Euskal Kulturaren alde lanian 60 urte, 150 liburu atera ditu gitxi gora bera. Bai bihotz abertzalea eukin biar da hainbeste urtian Euskal Kultura eusteko.

Nik enuben nere euskara ikastolan ikasi. Ni Elgetan eta gero Eibarren bizi nitzanian (1937-1955) gure euskera maitia eta gu euskaldunok oso zigortuta geunden. Horregatik nere euskera ez da ona. Baina bai nire euskera maite dot bihotzetik.

Hemen Argentinan badaukaz arrasatear lagunak. Bialtzen dotzuet euren helbideak. Nik bezela pozik hartuko dabe, Arrasate Press zoriontsua bialtzen badozue.

Berriz ere Aranzabaltar Joxe eta zure lagunei Eskerrik asko bihotzez, itsas gainetik besarkatzen zaituet danok.

¡Gora Arrasate!
¡Gora!
Zuen laguna,

*Xabier Egidazu*



# Zer iruditzen zaizu umeen sexua aukeratzea?



**Larraitz Arriolabengoa (Ikaslea)**

Nik ez dakit, niri berdin dit, gai horri buruz ez dut ulertzen. Baina uste dut aukeratzea ondo dagoela.



**Mikel Gorosabel (Musikoa)**

Ez, niri berdin izango litzaidake neska edo mutila. Ez da aukeratu behar, datorrena datorrela, neska nahiz mutila.



**Jose Maria Elortza (Jubilatua)**

Lehen ez zen horrelakorik, baina aukeratzerik izanez gero, ondo dago. Nik ez dut holakorik oraindik entzun, baina mejorarako izanez gero, dena ametitzen dut.



**Elisa Mendizabal (Langabetua)**

Niri oso ondo iruditzen zait. Neska nahi duenak neska eta mutila nahi duenak mutila, aukeratzeko modua dagoela esaten dutenez.

LENIZ
AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!
ARRASATE - ESKORIATZA

MemesA
79 42 22

KAJOI TABERNA
erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

KOPIOTXOA
Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak
Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

BAKAILO ETXEA
Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK



**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea ...... 79 53 00
Igualatorioa ...... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ...... 79 39 00
(emakumeak) ...... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ...... 79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara ...... 76 55 76

**DYA**

Antzuola ...... 76 62 91

**ANBULATORIOAK**

Arrasate ...... 79 13 57
...... 79 97 22
Oñati ...... 78 08 52
Eskoriatza ...... 79 88 96
Aretxabaleta ...... 79 74 58
Aramaio ...... (945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak ...... 45 87 44

**UDALTZAINGOA**

Oñati ...... 78 04 11
Bergara ...... 76 14 69
Arrasate ...... 79 14 39
Aretxabaleta ...... 79 10 52
Eskoriatza ...... 79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate ...... 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea ...... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ...... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ...... 78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) ...... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ...... 79 05 81
Gasa ...... 900 40 05 23
...... 79 78 44
...... 79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak ...... 79 12 22
P.E.S.A. ...... 79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza ...... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ...... 79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ...... 79 87 77

### *14 OSTIRALA*

— Zinea: Alai: "Los dioses deben estar locos II", 7 eta 10etan.
Novedades: "La guerra de los Rose", 10.30etan.
— San Martinak Bergaran: Gaueko 11etan rock jaialdia Reincidentes, Jo ta kie, eta Lunatics taldeekin.
— Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

### *15 LARUNBATA*

— Zinea: Alai: "Gremlins 2". 5, 7.30, eta 10.30etan.
Novedades: "La guerra de los Rose". 5, 7.30, eta 10.30etan.
— Kontzertua: Otxandioko musika bandarekin kontzertua Monterron parkean iluntzeko 8etan.
— San Martinak Bergaran: goizeko 9.30etan lore, fruitu, gazta, eta barazkien zazpigarren lehiaketa.
6etan Lehenengo San Martin herri krossa.
Gaueko 10.30etan tanborrada.eta ondoren dantzaldia Equus taldearekin.
— Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

### *16 IGANDEA*

— Zinea: Alai: "Gremlins 2". 5, 7.30, eta 10.30etan.
Novedades: "La guerra de los Rose". 5, 7.30, eta 10.30etan.
— Besaide eguna. 10.30etan meza,. Ondoren txistulariak.
— Erromesaldea Arantzazun.
— San Martinak Bergaran: Goizeko 9etan afizionatu mailako txirrindulari lasterketa.
Goizeko 11etan Chulilla eta Bergarako bandarekin kalejira.
Arratsaldeko 8.30etan umeen tanborrada.
Gaueko 11etan dantzaldia Gau Bela eta Tirri-Tarra taldeekin.
— Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

### *17 ASTELEHENA*

— Zinea: Alai: "Gremlins 2". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "Magnolias de acero". 7.30etan.
— Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

### *18. ASTEARTEA*

— Zinea: Alai: "Gremlins 2". 7 eta 9.30etan.
— Goardiako farmazia: A. Ruiz, Madalena.

### *19. ASTEAZKENA*

— Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

### *20 OSTEGUNA*

— Zinea: Alai: "Trilogia de Nueva York". 8.30etan.
— Goardiako farmazia: Azkoaga, Portaloia.

### *ERAKUSKETAK*

• Juan Antonio Unzurrunzagaren argazki erakusketa Monterron Kultur Etxean.

### *LEHIAKETAK*

• "Bilintx- V. Haur-Literatur Saria"n lanak aurkeztu nahi dituzten guztiek datorren irailaren 30ean eguerdiko 12ak aurretik igorri beharko dituzte honako helbide honetara: Bilintx liburudenda.Fermin Calbeton kalea, 30. Donostia 20003.

### *MATRIKULALDIAK*

• Udal Euskaltegia: Matrikula zabalik dauka irailaren erdialderarte, maila guztietan eta ordutegi desberdinetan. Informazio gehiago 79 70 77 telefono zenbakian, bulego orduetan.
• AEK-k matrikula epea zabalik dauka datorren 28ra arte, goizez zein arratsaldez. Maila guztietako ikastaroak emango dira, aukerako ordutegieta. Informazio gehiagom79 71 12 telefonoan aurki daiteke.

ARRASATE
UDAL EUSKALTEGIA

# MEREZI DU

## ESKAINTZA

| Erritmoa | Iraupena |
|---|---|
| Egunero **2** ordu | **Iraila-Ekaina** |
| Egunero **3** ordu | **Iraila-Ekaina** |
| Egunero **4** ordu | **Iraila-Abendua** |
| Egunero **5** ordu | **Iraila-Otsaila** |

**Alfabetatzeko ikastaro bereziak**

## BEKATZE SISTEMA

## MATRIKULALDIA

Irailaren **3**tik aurrera

**Bulego ordutegia**

Goizez **9.00-12.00**

Arratsaldez **15.00-19.00**

**Arimazuri 2, Tfnoa: 79 70 77 ARRASATE**

"Gizarteari zerbitzu bat eskaintzeko asmoz sortu zen kooperatiba taldea, kooperatiben arteko elkartasuna eta eraginkortasun enpresariala lortzeko asmoz. Kooperatibek badute arrisku bat, giza osagarri garatuegia edukitzearena alegia, eta hori dela medio, enpresak eraginkortasunik ez edukitzea gerta daiteke. Gizartearen garapena eta eraginkortasun enpresariala oreka egokian zaintzen asmatu dugu hemen".

*(Javier Mongelos-ek El Mundo egunkarian)*

"Bi aldiz saiatu naiz neure burua botatzen, biak Ana Maria Moix-engatik, bata espetxean eta bestea Valentzian. Egia esan, erakartzen nau bizimodu honekin behingoz bukatzeak. Hiru urte daramatzat giltzapean Arrasaten. Mesias bainintzen etorri nintzen eta alkoholzaleen sailera eraman ninduten, gaixoenak dauden tokira. Guztiak sendatu nahi nituen!
(...) Oso arraroa da euren burua bota zutela pentsatzea. Lehen gaisoekin komentatzen ibili naiz, miraria izan dela, Irunberriko miraria izan dela. Euskal Herriari dagokionez, esan behar dut botere sistema guztiak paranoia hutsa direla. Alde batetik komunikabideen ahotsa dago, botere hori ezartzen dutenak; eta bestetik politikoen ahotsa dago. Beti dira beraiek, ahots beldurgarri horiek; Jose Luis Corcuera-ren izena litzateke haien oihartzunaren laburpena".

*(Leopoldo Maria Panerok El Mundo egunkarian)*

**Hezibideren ustez, zer ondorio ekar dezake ikaslegoaren beherakadak irakaskuntzan?**



Irakaskuntzaren etorkizuna aurreikuspegiz begiratzen jakiten badugu, garrantzizko ondorioak dakarzkigula eta, denetan gertatzen den bezala, gertakizun sozial honek izan ditzakeen alderdi positiboak gure alde jartzen jakin behar genituzke.

Gure eritziz, inguru bakoitzeko ikastetxeak, lasaitasunez elkarren arteko aliantza eta akordioetara irits daitezen, ikasleak banatzerakoan burruka eta lehia desleialak sor ez dadin, mahai baten inguruan jartzea beharrezkoa da.

Agian, hezkuntz proiektu bateratu bakarrat egonda, bailarako zentruen espezializazioa onuragarria litzateke hezkuntzarako.

Bestalde, irakasleekiko izango duen eraginaz asko hitz egiten ari da, ikasle beherakada honek dakarren lanpostuen murrizketa dela eta. Egoera honek irakasle lanbidearen hobekuntzarantz bideratu behar gintuzke, etengabeko prestakuntza, birziklatze, ikerketa lana eta praktikaren hausnarketa bere betebeharretan ezarriz.

Hala eta guztiz, gure sektorea, beste guztiak bezala, errekonbertsio eta langabeziaren giroan murgilduta aurkituko da.

Beraz, Hezibidekoa izateak helburu hauei erantzuten dienez, aipatutakoak bultzatzen saiatuko gara.

*Txaro Iraeta*
*Hezibideko Arduradun pedagogikoa*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN

Arrasate
OPTIKA - OFTALMIKA

— Gogorrak
— Porodunak
— Bigunak
— Kosmetikoak
— Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!
Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU
Zure betaurreko eta lentilen asegurua dohainik
Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

# II. Arte Hamabostaldia astelehenean hasiko

## *Berrikuntza eta sorpresa ugari arkupetan bilduta*

San Frantziskoko kalistroan, artearen topalekuak ateak irekiko ditu datorren astelehenean, hilaren 17an. Irailaren bukaera arte, goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, bost talde gonbidatuen lanak ikusteko aukera izango dugu Arte Hamabostaldi taldeak antolatutako programa luzean. Ohizkoa denez, partaideek aurretik egin eta ekarri dituzten lanen erakusketa izango da alde batetik, eta bestetik, kalistroan bertan egiten ari direna ikusteko modua, tailer erara antolaturik. 28an Bilboko EIPE taldeak emandako hitzaldia izango da, '*Arte y transcendencia*" gaiaren inguruan, eta oraindik egunik zehaztu barik badago ere, Onditz Mendizabal elorriotarrak orain arte Arrasaten izan diren eskulturari buruzko lau sinposiumen laburpena eginez, hitzaldia emango du, '*Arrasateko eskulturak*' izenburupean. Hitzaldiak eta musika emanaldi guztiak kalistroko lokaletan izango dira.

### Berrikuntzak aurtengoan

Aurtengo nobedadeen artean, Euskal Herritik kanpoko artisten partaidetza aipatu behar, Bergara, Oñati, Altsasu, Bilbo eta Erriberako Kaskantetik etorritakoak gure artean izango diren arren, Madrilek ere bere ordezkaritza izango du eta. Angel Galipienzo da Madrileko taldean etorriko den nafarra.



Dani Laskurain bergarararen obra

Arte plastikoaz gainerako ikuskizun bezala musika sartzea pentsatu dute antolatzaileek, eta Txuspo Poyo artista altsasuarrarekin batera, musika alternatiboan saioak egiten dituzten kanadiar batzuk etorriko dira. Pealt Head taldeak herrian jasotako soinuen bilduma eskainiko du, musika elektronikoarekin nahasian. Hamabostaldia amaitu ondoren, beharbada erakusketa antolatuko da egindako obra guztiekin. Gure herriko kaleetan ez dugu Hamabostaldiko kartelik ikusiko, oroigarri berezia baizik. Amaierako egunean Hamabostaldiko intsigniadun txapak banatuko zaizkie kalistrora hurbiltzen direnei.

baldana

• Medikuntza orokorra
• Txertaketak
• Kirurgia
• Laborategia
• X izpiak
• Odontologia
• Ile apaindegia

URGENTZIA 76 27 97
*Koldo Elizalde 28, Etxebehea.*
*Tfnoa: 76 27 97*
*BERGARA*

ZENBAKI

*Kontabilitatea*
*Fiskalitatea*
*Lana*
*Zuzenbidea*
*Juridikoa*
*Finantzaketa*
*Aseguruak*

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
Irailaren 21erako

• Ortuari eta ganba-xehakina
• Keztatuen kabia hegaluze-belouté gainean
• Izokin eta erreboilo-abanikoa hiru konpotez
• Mugurdien aparra sagar-horrien gain kanela usainaz.

3.600 pta. BEZ barne
*Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56*
*OÑATI*

### Bilintx Saria

Bilintx liburudendak IV. Bilintx Haur-literatur Saria antolatu du, bi sailetan banatuak: 'A' sailean, O.H.O.-ko haurrei zuzendutako lanak, gutxienez 25 foliotako luzerakoak; 'B' sailean O.H.O.-ko Goi Zikloa eta B.B.B-ko gazteei zuzendutako lanak, gutxienez 75 foliotan. Lehenengo sailean 300.000 eta 175.000 pta.ko sariak jarri dira lehenengo eta bigarrenarentzat, eta 'B' sailean berriz, 500.000 eta 250.000 ptakoak. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

### Ingurugiro eskola

Udalako ingurgiro eskolako obrak bukatzear daudenean, dirulaguntzak lortzeari ekitekotan daude arduradunak, hil honen 25ean Eusko Jaurlaritzan egin asmo duten bilera batean. Obrak amaitutakoan, urrian, esperientzia pilotoa abiaraziko da, eta bertatik 500 haur inguru pasa ondoren, Udalean eztabaida ireki beharko da, eskola horrek etorkizunean zein antolaketa eta langile mota izango duen erabakitzeko.

# Parrokia berrizteko asmoa

## *Hamalau arrasatear proiektua aztertzen*

Joan den asteartean, On Jose Maria Astigarraga, Arrasateko parrokoak S. Juan Bautista eliza berrizteko egin den aurreproiektuaren kopia Gipuzkoako Gotzaitegian entregatu zuen.

Aurreproiektua Mikel Lasa eta Alberto Mendieta arkitekto arrasatearrek egin dute. Parrokiaren eskaerari erantzunez, Gipuzkoako Diputazioak agindu eta ordaindu zuen bi urtetako lanaren ostean egin den aurreproiektua.

Arrasateko parrokia XIV. mendean eraiki zen. Antzinako gotiko estiloan egina, urte eta mendeetan zehar estilo desberdinetako hainbat aldaketa egin zaizkio.

Parrokoa eta beste zenbait adituren ustez, S. Juan Bautista elizak eraaberritu sakona behar du. Uste horrekin bat datozen hamalauren bat arrasatearrek batzorde bat osatu dute, eraberritzearen nola, zenbatekoa, nolakoa, epeak, diru iturriak, etabar aztertzeko.


Parrokiak berrikuntza handia behar du

Une honetan gauzak ikusten diren bezala, badirudi parrokia berrizteko obren aurrekontua 200 milioitik gorakoa izan daitekeela.



### *Zerrendari begiratua*

Udaletxeko arkupeetan aste guztian zehar izan dira ikusgai, hauteskundeetako zentsoaren zerrendak. Jendea hurbildu da, bere izena ageri den ala ez, eta zuzen dagoen egiaztatzera, gero erreklamazioak aurkezteko. Begiratu ez baduzu, igandera arte daukazu epea.

KiDE
Paperdenda eta jostailudenda
Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA
-k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu
Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE




Deunoro Otero, zerbitzuaren arduraduna

# Drogaren prebentziorako

## *Gizarte Ongizate sailak liburuska kaleratu*

Arrasateko Udalak drogomenpekotasunaren prebentziorako zerbitzua jarri zuen joan den urtarrilean. Ordutik, asistentzia mailan dihardu lanean Ongizate sailaren barruko atal honek, eta bere zeregina asistentzia mailako erantzuna ematea da, ez drogazaletuaren terapia zuzenean. Kontsumo egoerak eraginda daudenei informazioa ematean oinarritzen da lehen lana. Errehabilitatzeko dauden zentruei buruzko informazioa eman, gero aukera dezaten. Bestalde, prebentzio mailan eragile eta baliapide izatea da zerbitzuaren egitekoa. Pertsona, elkarte, zentru eta antzekoen eskariei erantzuten zaie. Gizarte osoari informazio, sentsibilizazio eta inplikazio zabalagoa lortzeko prebentzio programak proposatzen dizkiote.

Orainarteko lana, Arrasateko gizarte arlo ezberdinetako interlokutoreekin harremanak eta egoeraren diagnostikoa egitea izan da, elkarlanerako abiapuntu bezala.

Oraindik jendeak ez du askorik jotzen bertara, alde batetik berria delako eta beharbada aurreiritzi, kokapen, funtzio eta pertsona aldaketa eta beste arrazoi batzuengatik, zebitzukoek diotenez. Ezagupenik eza nolabait konpontzeko, Udaleko Ongizate Sailak liburuska bat kaleratu du, zerbitzua ezagutzera emateko, helbide, ordutegi eta telefonoekin.

Edozein harremanetarako, Drogomenpekotasunerako Prebentzio zerbitzua Arrasate Pasealekuko 5.ean dago. Goizeko 9etatik 1etara da bere ordutegia, eta 79 41 39 telefonoan erantzungo dizute.

## Usteak uste...

Ferixalekuan baziren 20 zuhaitz, platano-arbolak deitzen diren horietakoak, Amaia paretik hasi eta Eresi pareraino zihoan iladan. Asteazken goizean telefonoak jo zuen gure erredakzioan eta arbolak ebagitzen ari zirela abisatu.

Bi kazetari irten ginen harantz, argazki-makinaz batak eta telebista kamaraz bestea. Oraindik amaitu barik zeuden. Hiru platano-arbola zeuden zutik, eta ikastola eta eskolako ume piloa begira. Motozerrak berehala ebagi zituen guztiak, hogei platano-arbola denetara. Dirudienez, Ferixalekuko lurrazpiko aparkalekuak egiten ari den enpresak bota zituen.

Han zegoen enkargaduari hainbat xehetasun galdetu genionean ez zigun erantzun nahi izan, *"zuek kapaz zarie gero edozer gauza jartzeko eta..."* Ez zegoen lasai gizona.

Ez dakit gero alde horretan zuhaitz berririk landatzeko asmorik dagoen ala ez, baina egun batean hogei arbola, hogei, botatzen ikusteak lur jota uzten nau. Zementoaren zibilizazioa itotzen ari zaigu. Ahaztu egingo zaigu arbola eta landareekin bizitzen. Brasilen egiten den politika ikusten da hemen: lehenengo arbolak bota; ondoren, hitz egiten hasi.

Gauzak horrela egiten diren bitartean ingurugiro egunek ezer gutxi balio dute.

*Joxe aranzabal*

VICTOR RUIZ MELGAR
Pintorea
Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

E D E L
TAPIZTEGIA
Gortina
Alfonbra
Koltza
Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Eskualde Ospitaleko kirofanoan

# Anestesistekin arazorik ez

## *Bost anestesista argentinar Eskualde Ospitalean*

Eskualde Ospitaleak plantila aldetik izan duen arazo larri eta ezagunenetarikoa nahikoa anestesistari eza izan da seguru asko. Zumarragako eritetxeari bezala, badirudi Arrasatekoari ere konponbidean jarri zaizkiola gauzak. Lehendik zeuden biei beste hiru anestesista argentinar gehitu zitzaizkien maiatzean eta horrela txandak egiteko modua beste era batean antolatzeko bidea izan da langileentzat neke gutxiagoz.

Maiatzetik, hala ere, etorri berriek ez dute euren lanari ekiterik izan, Argentinako titulua hemengoarekin baliokide egin arte, eta horretarako hainbat azterketa gainditu behar izan dituzte, hemengo osasun legeria, kode etiko eta abarri buruzkoak.

Maria Eugenia Moyano, Jorge Mario Buffa, Hugo José Ferraro, Héctor González eta Pedro Hondeville dira Arrasateko taldea osatzen dutenak eta euren lanarekin txanda egokiak egin eta ondo erantzun ahal izango omen zaie kirofano biak eta larrialdietarako zerbitzuari.

**Egoitzako monjak**

Iturbide egoitzako monjek, Karidadeko Mertzedarien ordenakoek, Arrasateko erresidentziako lana uzteko erabakia hartu dute. Badirudi bokaziorik ezak eragin duela lekaimeek etxe hori uztea, monja gazterik ezak beste etxe batzuetara joan beharra eragingo bait du. Orain 6 dira Arrasateko Egoitzan daudenak eta urtearen amaiera aldera aldegingo dute, seguruenik, Arrasatetik.

**Istripuak abuztuan**

Arrasate eta inguruetan aurtengo abuztuan gehitu egin dira auto istripuak aurreko urtekoekin gonbaratuz, Ertzaintzaren iturrietatik jaso ahal izan dugunez: 1989an Ertzaindegiak jasotako atestatuak 6 izan ziren, eta istripu horietan zauriturik gertatutakoak, berriz, 10. Aurtengo datuei begira jarriz gero, 7 istripuren berri jaso du Ertzaintzak eta 11 izan dira zaurituitakoak. Kontuan izan behar da, gainera, Ertzaindegian ez direla denak jasotzen.

### *JAIOTZAK*

Aitor Perez ***Alvarez***,. Abuztuaren 30ean.
Lopez Gonzalez ***David***, 31n.
Urzelai Eizagirre ***Olatz***, 31an.
Fernandez Piñeira ***Nerea***, 18an.
Usatorre Martinez ***Amaia***, Irailaren 3an.
Agirrebeitia Gorostidi ***Iñaki***, 5ean.
Ruiz Ormazabal ***Endika***, 6an.
Garcia Valero ***Ruben***, 7an.
Gorostidi Gonzalez ***Maialen***, 8an.
Aranzabal Heriz ***Imanol***, 8an.


Jose Aranzabal
ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 79 15 16
AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

EPELDE
argazki denda
Iturriotz 24

KOLTZA
FAGOR SUKALDEEN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIAK
Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

Eslu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



Behar bada harresia museo bihurtuko da

# Harresia, dagoenetan

## *Azoka eta Takolo ere aztergai Gobernu Batzordean*

Joan den astelehenean, hilak 10, Arrasateko Udaleko Gobernu Batzordeak, Zerkaosteta eta Arrasate Pasealekua elkartzen diren lekuan aurkitutako harresia kontserbatzearen aldeko erabakia hartu zuen. Aurkeztutako ideien artean museo erara gordetzearena aipa daiteke, eta beste batzuk ez dute hori egingarri denik uste. Hala ere, oraingoz ez da inolako lanik egingo, eta bere horretan eutsiko zaio.

Gobernu Batzordean, Udal azokaren proiektua Juan Mari Osinagari enkargatu zitzaion, eta presa handiz gainera, zenbait saltzaileri lizentziak amaituko bait zaizkie aurki.

Takoloko edukiontzien auzia dela eta,Udalari kontrolik gabeko hondakin botatzeak diru kostu handia dakarkionez, arazo horri nolabaiteko segimendua egin beharra dagoela ikusi zen. Oraindik erabakirik hartu ez den arren, daiteena da Udalak eginkizun horretarako bi langile kontratatzea.

### Helduen Heziketa

Arrasateko Helduen Heziketa Ikastetxeak matrikulaldia zabaldu du hil honetan. Ikastaroetan esku hartu nahi izanez gero, Ferrerias kaleko 28-Bra jo dezakezu, goizez 10etatik 1 arte, edo 77 11 72 telefonora deitu. Udaletxean ere egin daiteke izen ematea, bulego orduetan.

Helduen Heziketa Ikastetxeak irakurtzen eta idazten ikasi nahi duten, Eskola Graduatua atera edo beren ikasketak osatu nahi dituzten helduei irekitzen dizkie ateak. Eskola orduak goizez, arratsaldez edo gauez izango dira, egunean bi ordu.

### Besaideko eguna

Besaide Mendizale elkarteak Euskal Mendizale Federazioarekin batera, Besaideko eguna antolatu du, urtero bezala datorren igandea, hilaren 16rako. Hasieran Besaideko monumentu berriaren inaugurazioarekin batera hilaren 25ean ospatzeko asmoa bazegoen ere, azkenean udaberrirako uztea pentsatu da, eta mendizale arrasatearren eguna ohizko igandean izango da.

Eguneko ekitaldiei mezarekin emango diete hasiera, goizeko 11etan, Besaidera hurbiltzen direnek eta ondoren txistulariak ere izango dira. Mendizale guztioi deia egiten dizuete Besaidetik, hildako mendizaleen oroimenezko egun honetan elkar zaitezten.





PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

**Eskola Politeknikoa**

Arrasateko Eskola Politeknikoan hasiera mailakaturik egingo da: Irailaren 17an Batxiler Orokorreko 1go eta 2. mailak, goizeko 10etan batzuk eta arratsaldeko 3etan besteak. 18an goizeko 10etan Goi Batxilergoko, Heziketa Teknikoko eta Injinerutzako lehen ikasturtea, eta arratsaldeko 3etan Goi Batxilergoko eta Heziketa Teknikoko 2.a eta Preparatorioa.

Irailaren 19an, goizeko 10etan 3. modulua eta Heziketa Teknikoko 3.a. eta hilaren 25ean, azkenik, Injinerutzako 2.a goizeko 9.30etan eta 3.a 11etan.

**Lapurretak**

Ertzaintzak emandako datuetan iazko abuztuko lapurretak aurtengoekin gonbaratuz, aurten orokorrean gutxitu egin dira. Berebiletatik zazpi lapurtu zituzten iaz, aurten bezala, eta lokaletan 7 baziren, 4 jazo dira abuztuan.

**UCEM eta Kursaal Kasinoa**

Arrasateko UCEM enpresak Donostiako Kursaal kasinoaren %75a erosi berri du, iharduera erabat ezberdinean sartzea lortuz. Horrezaz gain, UCEM taldeak Diamant Boart Iberica S.A. enpresaren %30a ere bereganatu du. Madrileko Diamant, ebaketarako tresna egileak diamantea eta laserra erabiltzen ditu.



Arrasateko kaleak Pastoralez jantzi ziren

# Iparraldea hegoaldera ekarri

## *Pastoralean 1.500 lagun bildu Monterronen*

Eguerdiko hamabietan hasi zen jaia. Iparraldeko 70 lagunak Arrasateko kaleetan zehar ibili ziren, Pastoraleko jantziak, askorentzat ezezagunak, herrian zehar paseatuz. Antzezleek, goizeko pasakalea egin ondoren, 'Elkartu'n bazkaldu zuten, SUDC batzordeak antolatuta.

Arratsaldeko ekitaldirako giroa beroturik, 4.30etan hasi zen, Monterron Parkean, pastorala antzeztea, eguzkitan bildutako jende multzo politaren aurrean. Eguraldi aproposa, belarretan nahiz parkeko harri gainean bildu zen milakoarentzat.

Euskaltzaletasuna eta 'Zazpiak bat' dira Abadia Urrustoi Pastoraleko protagonista nagusiaren, Antonio Abadiaren bizitzako leloak, pastoralean argi eta garbi agertu zirenak. Hartarako argitaratutako liburuskari esker, zailtasun barik jarraitu ahal izan genuen antzezleen zuberera.

Iluntzeko 8.30etan bukatu zen jaia. Seaskakoek Udalari, Maritxu Kajoi Batzordeari, SUDC-i eta AEDri opari bana eman zizkieten, eta baita alderantziz ere.


AHIZKE

**AHIZKE-CIM Koop. E.**

ACEIG-FECElko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana / Haurrak / Maila guztiak
Frantsesa / Gazteak / Azterketarako prestakuntza
Ingelesa / Helduak / Ohizko ikastaroak eta trinkoak
Enpresak

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

**LOREA**
**Oinetakoak eta poltsak**
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

**L ARRINGAN**
**auto gidarien eskola**
***KLASE TEORIKOA IRAKASLEAREKIN***
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Negar artean agurtu zuen ama

# Hasiera latza Umezaintzan

***Beterano eta berrien artean, 78 haur Altamirakoan***

Nagusitxoagoak eskolara bezala, haur txikiak ere sartu dira eguneroko errutinan. Oporretan zituzten lo egiteko aukerak ahaztu eta aita-amek lanera joan behar dutelako, Umezaintzara eramango dituzte aste honetatik aurrera.

'Beteranoak' -hala deitzen diete haurtzaindegian, lehengo ikasturtetik etortzen direnei-, astelehenean hasi ziren, eta berri-berriak asteazkenean iritsi ziren lehenengoz Altamirako Umezaintzara. Hasiera honetan 78 haur dituzte guztira. 10 umeko talde bi daude, urte beteko haurrez osatuak, eta 15eko beste lau talde, koxkortuagoenak; horietako bitan, hala ere, 14 baino ez dituzte ikasturte berriari ekiterakoan

Goizeko bederatzietan eramaten dituzte ume berriak Umezaintzara, eta lehenengo egunetan goizeko 11.30ak ingurura arte baino ez dira geratuko, ohitu bitartean. Batzuk sartu ere negarrez egiten dira, eta lasai geratzen denak ere laster galdetuko du 'amatxo?, aitatxo ?'. Ohitura berriak kosta egiten dira.

## Aitor Aranaren azken liburua

SM argitaletxeak Aitor Arana legazpiarraren liburua argitaratu berri du: *Loaren bidez*. Idazlan honekin Aitorrek 1989ko III Bapore Saria irabazi zuen.

Loa eta denbora dira 14, 35 eta ehun urte baino gehiagoko hiru lagunek konpondu beharko duten arazoan giltzarri nagusiak. Hamabi urtetik aurrerako neska-mutikoentzat idatzia.

Aitor Arana Zubillagako Gertu irarkolan egin du lan. Orain Araotzeko abadetxean bizi da. Esperanto-Euskara hiztegia eta pare bat nobelarekin ari da jo ta ke lanean.




IRAKASLE ESKOLA

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:

1990-91 IKASTURTERAKO
MATRIKULAZIO-EPEA ZABALIK
DAGOELA IRAILAREN 26arte.

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943- 79 04 40
Ordutegia: 9-12 eta 15-18

ECUADOR
Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale 11. Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Astelehenean, hilak 10, auto modelo berria aurkeztu zuten Arrasateko **MECA-n**. 'Clio' deitzen diote eta Renault 5a ordezkatzera ei dator: gazteentzako apropos egina, txikia baina bizkorra. Mokadu bat eginaz han izan zen Arrasate Press ere eta Justi Bujandari berebil berriaren alboan argazki hau atera.



Arditxakur txapelketen bolada hasia da, eta sarritan ikusi ahal izango du, horietara hurbiltzen denak, **Udala auzoko Jexux Mari Plazaola** eta **Mendi**ren irudi hau. Gipuzkoako txapelketan bigarren saria irabazi zuten bi lagunek, eta Euskadiko txapelketan parte hartzeko aukera izango du Mendik. Artzaiak agindutakoa betetzeko beti prest!



Aspaldi ez genuela **Joseba Nafarrate** aramaixoarra Arrasaten ikusten. Lenniz Koop. Elkartean lan egin ondoren, Londonen egon zen hiru urtez eta bideo produkzioan espezializatu. Orain Gasteizen bizi da eta bertako Udalaren Irudi eta Teknologia Berrien Zentruan egiten du lan. Ekoizpen, gidoigintza eta errealizazio sailaren arduraduna da. Joan den larunbatean Arrasate Telebista ezagutzera etorri zen.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



◄ Joan den ostiralean **Mikel Etxebeste**, 11 urteko arrasatearra osabarekin egur bila joan zen Andiara. Ez dakigu sutarako egurrik batu zuten, baina enbor batean ieska galanta aurkitu bai. Etxera ekarri eta lagunei erakutsi ondoren gurekin akordatuta, pozik ageri da argazkian. Ikastolara, Gazteluondora ere eraman omen du.

## izen propioak

**_Ritxar Cuevas_**, 18, antzuolarra, Euskadiko Trikitilari Txapelketan garaile atera zen, 22 urtetik beherakoen artean. Txapelketa abuztuaren 15ean izan zen Zeanurin eta Ritxarrek Epelderekin bikotea osatu zuen, panderujole lanetan. Aurtengoa izan da bikote moduan aurkeztu diren lehen aldia.

**_Jesus Mari Plazaola_**, 33, eta **_Mendi_**, 2, udalarrek bigarren postua atera zuten Gipuzkoako ardi txakur txapelketan, joan den igandean, hilak 9, Ezkion. *Palazio* baserriko txakurrak 266 puntu atera zituen, lehenengoarengandik hamabost puntura geratuaz. Plazaolatarren Mendi txakurra, lehen txapelketetan hain ezagun egin zen 'Gure'-ren umea da.

**_Jose Luis Oliver_**, 43, arrasatearra, Santiagoko bidea egin berri du hamabi egunetan. Santo Domingo de la Calzada, Errioxako herritik, atera zen eta dirudienez berriro egiteko asmoa ere du, baina hurrengoa Orreagatik aterata.

Argazkikoak **Gaizka Mondragon Arregi** eta **Arantza Izura Arizpeleta** ditugu. Maiatzaren 19an ezkondu ziren Arantzazuko santutegian eta bazkaria Sindika jatetxean egin zuten. Zorionik beroenak bioi! ►



Foto Imagen

ce ERRASTI KRISTALDEGIA
**Plastiko eta burdinazko hodiak**
**beirina eta kristalak**
**akzesorioak**
Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**
**arrandegia**
**arrain freskoa**
**eta jaki izoztuak**
**Uribe Auzoa**
**Arrasate. 79 98 94**



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

Alai
Otalora 2, ARRASATE

# Lehen *Lana*, orain *Udala* kooperatiba

## *Euskal Herriko gaztaiak Europan ere arrakasta*

**San Andres auzoan, Bedoñarako bide berriaren alboan, Lana dagoela denok genekien; baina etxe ezagun horretan aldaketak izan dira, Udala izena eman diote. Euskal Herriko gaztaiak munduan zehar ezagun egiteko bidetan dira.**




Kartel hori laster aldatu egingo dute

### *Lanatik Udalara*

Baserriari industriaren barruan irtenbide bat ematea buruan harturik, 'Lana nekazari kooperatiba' sortu zen 1962an, eta nekazaritzaren inguruko bi iharduera bereganatu. Alde batetik esnea komertzializatzea, eta egurrari trataera industriala ematea. Bestetik, esnekietara zuzendua, Arrasateko San Andres auzoan dagoena, aldaketa handien lekuko izan da azkenaldian, besteak beste, *Lana* izatetik *Udala* izatera pasa da.

Esne produkzioaren geroa ilun ikusirik, gaztandegi txikia jarri zuten 85ean. Errekonbertsioa zela eta, Gurelesa, Urbia, Beyena eta Copeleche enpresak bategiterako oinarriak aztertzen ari ziren garai hartan. 1987ko abenduan Iparlat elkartea sortu zen esnearen enpresa horietatik eta Lanako esne likido guztia hara trensferitu. Aurtengo maiatzaren 15ean utzi zitzaion Lanan esnea ontziratzeari eta ordutik, hemengo baserritarrek Iparlatera nahiz beste enpresaren batera bidaltzen dute esnea.

### *Gaztai motak*

Gaztak egitea erabaki eta zein motatakoak egin aukeratzerakoan, hiru erreferentzia bereizgarri ezarri ziren: behiesne hutsez egindako gaztaia, behi eta ardi esnea nahastuz egindakoa, eta ardiesne hutsezkoa. Ardiesnezko gazta mota hedatuena Idiazabalgoa zela ikusita, Idiazabalgo gaztarentzat jatorrizko deitura lortzeko lanetan hasi ziren, lau gaztaenpresa eta 'artzaigazta' izeneko artzai elkartea, eta 87ko uztailaren 20an kaleratu zen izen hori legeztatu zuen dekretua. Ordutik, lau gazta ezberdin ateratzen ditu gaur egun Udala denak: Behiesnezko *'Usoa'*, *'Orbela'* nahastua eta Idiazabalgo edo ardiesne hutsez egindakoen artean *'Opakoa'* eta *'Larrun'*.

### *Arazoak*

Esnea eskuratzeko, taldeko beste kooperatiba birekin egin du Udalak hitzarmena. Eta horrela, Aramaioko Behialdek bildutako esne guztia gaztak egiteko erabiltzen da Udalan, behiesne hutsezkoa eta nahastutakoa egiteko. Ardiesnea, berriz, Arabako Artalde kooperatibari erosten zaio kopururik handiena, eta gainerakoa Deba Garaiko eta Goierriko artzainek batua da.

Enpresa bezala gaur egun Udalak daukan arazorik larriena, ardiesnearen denboraldi laburra da. Izan ere, ardiak urtearen hasieratik uztaila ingurua arte bakarrik ematen du esnea, eta horrek oztopo handiak jartzen dizkio, Idiazabalgo gaztaiaren produkzio guztia hilabete horietara mugatu beharrak dakarren lan pilaketarengatik, batetik, eta produktua estandarizatzeko orduan duen eraginarengatik bestetik. Hori dela eta, Artalde kooperatiban eta gainontzeko artzainekin ere denboraldia luzatu nahi da, umealdiak kontrolatzearekin abantaila izango lukete eta artzainek: urtean zehar denbora luzeagoz diru iturria, eta bildotsa beste sasoi batean merkaturatzearekin haragian ere prezio hobeak.

**Amerika merkatu urrun baina ona da Idiazabal gaztaiarentzat**

*Gaztaia pausoz-pauso*

Esnea gaztai bihurtzerainoko bide guztia erabat eskuz egiten da Udalan. Esnea gatzagiarekin moztu, prentsatu eta moldean ezarri, hasteko. Ondoren, salmueran edukitzen dira gaztaiak eta ontze aldia dator gero, bi hilabete inguru. Kea emanda edo ke barik, horixe da esnea, Idiazabalgo gazta bihurtua.

Sanitate eta kalitate aldetik, Udalako bertako laborategiak egindako azterketez gain, Iruñeko batekoak eta Idiazabalgo gaztaren Kontseilu arautzaileak ezarritako frogak gainditu behar dituzte esneak eta gaztaiak, eta horiek pasa eta gero ekiten zaio merkaturatze eta banaketari.



*Udala*rako esnea Beialde eta Artaldetik

# Autengo gaztairik onena

Abuztuaren 25ean Plentzia zeukaten topaleku Euskal Herriko hamabost gaztandegik. Idiazabalgo gaztaientzat antolaturiko I. Txapelketak bildu zituen eta sari hori eskuratzen zuenak txartel batean kalitatearen garantiarik onena jasoko zuela, jakinean zeuden. Arrasateko *Udala* kooperatibak bereganatu du ospea

Hamabost partaideetatik, hamarrek keztatu gabeko gaztaien espezialitatean hartu zuten parte, eta kedunetan besteek. Pasa behar izan zituzten frogen artean kanpoko itxurarena izan zen lehena: azala, forma eta antzeko ezaugarriak gainditu zituztenak, gaztai dastaketa izan zuten. *'Irabazi duenak ez du irabazi besteak txarrak direlako, benetan gaztai onak izateagatik baizik. Gaztai bakoitzak bere balio berezia azaldu du'*, epaimahaikideen hitzetan.

Gaztai kontuetan adituak diren sei lagunek osatu zuten epaimahaia: Yolanda Barcina, Dietetika eta Giza elikadurako irakasleak, Jean Moga, Iparraldeko Injineru agronomoak, Enrike Canut, nekazari injineruak, Instituto Nacional de Denominación de origen delakoaren ordezkari bezala Luis Herrero, Patxi Perezek, Idiazabal gaztaren Jatorrizko Izendapen elkarteko teknikariak eta Jacky Megek, iparraldeko ordezkariak.

Jasotako saria, egurrean landutako irudi polit bat da. Baina hori garrantzitsua izanik ere, ez du inportantzia txikiagoa sari hori irabazteak gazta saltzaileen artean irabazten duen famak. Euskal Herriko hurrengo Txapelketa arte Udala izango da Idiazabalgo gaztarik onena, eta pegatina berezi batek bereiztuko ditu. Orain Euskal Herri guztira, Aragoi eta Kataluniara bidaltzen dira gaztaiak estatu barruan eta atzerrian Frantzia, Italia eta Alemanian arrakastaz urratu dute bidea. Aldaketa handiak, urte berrietarako, kooperatiba arrasatearrarentzat. Lanaren lehengo anagramako zuhaitzaren ordez Stradivarius bibolina ikusiko dugu aurrerantzean Udalarenean. Bertakoek dioten bezala, notarik finena ematen duen soinu tresna, gaztairik finenarentzat.

AUTO ESKOLA ARRASATE
7etatik 8etara klase teorikoak
Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA




**Ia 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaioke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?**

- 9 liburuzki dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-larruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estanpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditurik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

## *Euskara ikasteko erabili beharreko obra*

**LASTER PREZIO IGOERA**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**
Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93



# Mondra gora begira

## *1983tik hirugarren mailan*

"Club Deportivo Mondragon" bezala ezagutu zen lehen taldea 1913. urtean sortu zen, hiru urte beranduago desagertzeko. 1922. urtean, Maalako futbol zelaia inauguratu zen urtean, berriro ere Mondra taldea sortuko zen. Urte haietan Gipuzkoa mailako lehiaketetan hartu zuten parte Arrasatekoek eta aipagarriak dira bergatarrekin edukitzen zituzten norgehiagokak . Bitarte horretan ere Iturripeko futbol-zelaia zabaldu zen, 1923. urtean.

Gerra ostean Mondrak maila galdu zuen eta desagertzeko zorian egon, baina 1942. urtean beste talde bat sortu zen. Talde honek bere lehen denboraldian Gipuzkoako kopa eskuratu zuen, eta ondorengo urteetan liga ere bi aldiz ekarri zuen Arrasatera. Garaipen horiek medio, futbol-zelai berria inauguratzea lortuko zen 1945. urteko ekainean.

Urte horietako denboraldi hoberena 1948-49 denboraldia izan zen, Espainiako afizionatu mailako txapelketako finalerdietaraino iritsiz, eta preferente mailan jokatzea lortuz. 1952-53 denboraldia ere aipagarria da Mondraren historian, denboraldi horretan lehen aldiz hirugarren mailara igotzea lortzen delako.

Mondrak lehen aldiz hirugarren mailara igo zuenetik asko izan dira aurrera eta atzera emandako pausuak, 1983. urterarte. Ordutik hona Mondrak hirugarren mailari eutsi dio eta badirudi nolabait egonkortasuna garaian murgildua dela, asmoak betidanik bigarren B mailara igotzekoak badira ere.

ALE S.A.
Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak
Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

SAMEGO GARBIKETAK
Alfonso X. Jakintsua 5,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE



**Jose Luis Etxebarria**, 33 urte, Lehendakaria.



**Pello Bengoetxea**, 34, entrenatzailea. Ondarrutarra da eta aurtengoarekin bigarren denboraldia beteko du Arrasaten.



**Jesus Martin, "Txutxin"**, 25, atezaina. Gasteizen jaio zen eta Arrasatera etorri aurretik Alaves taldean ari izan zen.



**Gaizka Unzueta**, 19, arrasatearra, atezain jokatzen du eta aurten igo du gazteen taldetik.



**Iñaki Bedialauneta**, 21, Ondarrutarra Mondrara aurten etorri da Mutrikutik.



**Josu Maturana**, 24, atzelaria. Eskoriatzan jaioa, Alaves afizionatuetan jokatu du. Bigarren denboraldi Mondran.



**Iñaxio Garro**, 27, erdilaria. Atxabaltarra da eta Mondran dagoenekoz hiru denboraldi bete ditu.



**Igor Gordobil**, I9, erdilari. Bigarren denboraldia betetzera doa lehen taldearekin.



**Iban Aranguren**, 19, aurten lehen taldera igo duen arrasatearra. Erdilaria.



**Igor Lizundia**, 19, Aurrera Ondarroatik ekarri dute. Zelaiaren erdialdean jokatzen du.



**Unai Etxaburu**, 20, laz etorri zen Aurrera Ondarroatik. Izatez ondarrutarra da eta erdilari lanak betetzen ditu.



**Bittor Bengoetxea**, 19, ondarrutarra. Aurten etorri da Aurrera Ondarroatik.

Bere historian zehar Mondra futbol taldeak egin ditu aldaketak ikurrari dagokionez. Jose Letonak, Mondraren historiari buruz idatzi zuen liburuari esker, gutxienez ezkerrean agertzen direnen berri jakiteko aukera izan dugu. Ezkerrean dagoen ikurra I940. urtekoa da, Mondrak regionaleko lehen maila galdu zuen urtekoa. Erdiko ikurrak *"Juventud deportiva de Mondragon"* zelakoa irudikatzen I942. urtean. Eskuineko ikurra gaur egun dagoen bera da eta nolabait batetik bestera taldearen eta Arrasateren historia isladatzen da.

COMERCIAL TERRESTRE MARITIMA
TRANSPORTES
ARANBURU COTEMAR
Garraio agentzia
ATA
Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE
beinke



**Pedro Dorronsoro**, 24, atzelaria. Gasteiztarra da, eta aurten etorri da Aurrera Vitoria taldetik.



**Alberto Urretxu**, 19, arrasatearra. Atzelaria da eta gazteen taldetik dator.



**Iñaxio Rodriguez**, 21,. arrasatearra da eta dagoenekoz bere hirugarren denboraldia betetzera doa Mondrarekin.



**Lucio del Alamo**, 29, gasteiztarra. Atzelari hau iaz ekarri zuten Aurrera Vitoria taldetik.



**Xabier Urbina**, 20, Arrasaten jaioa. Aurtengoarekin hirugarren denboraldia beteko du lehen taldean.



**Luis Dieguez**, 27, atzelari jokatzen du, aurtengoa bere laugarren denboraldia izango delarik.



**Iker Balzategi**, 22, aurrelaria. Arrasaten jaioa, laugarren denboraldia beteko du Mondrarekin.



**Karlos Aramaiona**, 25, gasteiztarra da eta aurten etorri da Mondrara. Orain arte Ibiza eta Mirandes taldeetan ari izan da.



**Juan Luis Aranburu**, 25, aurrelaria. Arrasaten jaioa eta makina bat taldetan ari izana: Sanse, Aurrera, Barakaldo, eta Alavesen.



**Alberto Rot**, 23, gasteiztarra. Español, Eibar, Lemoa, eta Alaves taldeetan jokatu izana.



**Juan Jose Fernandez**, 25, zumarragarra. Alaves taldean jokatu du eta orain. Lesionatuta dago.



**Jose Ignacio Apraiz**, masailaria. 46, Eskoriatzarra da eta aurten izango du bere lehen denboraldia Mondrarekin.

## 18 milioiko aurrekontua

Beste edozein taldek bezala denboraldia hasterakoan, Mondrak mailaz igotzeko asmoa dauka. Aipatutako asmo hori errealitate bihurtu dadin aurtengo denboraldiari begira hamaika jokalari berri izango ditu Mondra taldeak. Lehen taldearen aurrekontua 10 milioikoa da eta gainontzeko zortzi taldeena beste zortzi milioi.Kirol emaitzak alde batera utzita Mondra futbol taldeak aurten bi helburu izango lituzke: bata gazteengan kirol ohiturak sortzea eta, bestea, futbolerako gai diren gazte guztiei aukera ematea.

## Gazteak zaletuz

Dudarik barik Mondra futbol taldean hirugarren mailakoak dira momentuz garrantzitsuenak, baina ez horregatik bakarrak.
Beste zortzi talde ere badira 170en bat haur federatu biltzen dituztenak, horien artean aipagarri nesken taldea.
Federatuez aparte, gainontzeko haurrez ere arduratzen dira Mondra taldea daramatenak eta eskolarteko jokoak direla eta ez direla, 600-700 ume izango dira gutxi gorabehera egunero baloiaren ondoren korrika ari direnak.

LURRINDEGIA
ERTZ
OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

ARTE LENIZ
koadro eta moldurak
Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE


a,eme..interiores
Mondragon Futbol
Taldearen 90-91
denboraldiko
babesle ofiziala.

# "Gure kezka euskararen etorkizuna da"

## Jean Louis Davant, Abadia Urrustoi Pastoralaren idazlea

**Joan zen astean Monterron parkean Abadia Urrustoi pastorala antzeztu behar zela eta, bere egilea Jean Louis Davant idazleak, bezperan egindako prentsaurrean parte hartu zuen. Prentsaurrean hitz egin aurretik pastorala, Zuberoa, eta orokorrean, Iparraldeari buruz zertxobait gehiago jakiteko aukera eman zigun.**



Jean Jouis Davant

***— Nola ikusten duzu Iparraldeko kultur giroa?***

— Aberatsa, ez diruz baina bai borondatez, ideiaz eta kemenez. Lanerako gogo handia daukaten talde asko dago. Etorkizunera begira ere ni baikor nago talde horien lanaz. Kezka handiena euskarak herrian nola iraungo duen da. Dena frantsestua dago: telebista, eskola, administrazioa,... Sare publiko guztia dago oso frantsestua eta horrek ez digu laguntzen. Azkenaldi honetan gazteetan eta haurretan beherakada izan du euskarak.

***— Beraz, pastoralean ez da islatzen gaur egungo Zuberoa?***

— Bai eta ez. Pastorala urtero ematen da orain, idazle berriak badaude. Pastorala egiten den bakoitzean pastoral berria da, testu berria da. Herri batzuk dira bakarrik Pastorala egin dutenak: Barkoxe, Urdiñabe eta Muskildi. Baliteke Santa Engratzi eta Larrainek ere egitea. Beraz, Zuberoako zati baten adierazgarri da pastorala, gelditzen den parte euskaldun batena.

***— Egin daiteke pastoralik gaur egungo pertsonaia batekin?***

— Ez, nik nekez ikusten dut. Gaurkoa bai, hilik daudenen artean, eman dezagun Agirre, Monzon, edo Sabino Aranari buruzkoa.

***— Zer elementu sartu behar izaten da pastoraletan?***

— 25tik 30era jalgi aldi izaten dira, pertsonaia bati buruzkoak. Mezu bat behar izaten da, eta mezu hori ezagutzera emateko aingeruak edo goiko indarrak eta satanak edo azpiko indarrak erabiltzen dira.

***— Nola ikusten duzu Zuberoako gazteria?***

— Oso kontrastatua. Alde batetik euskaltzale eta abertzale direnak badaude; bestaldetik, badago beste parte bat euskaldun direnak baina ez abertzaleak. Horretaz aparte, zati handiena euskara galdu duen gazteriak osatzen du. Euskara oso egoera txarreandago Zuberoan, oso gutxi dira euskaraz mintzatzen direnak.

Beste arazo bat populazioaren beherakada da. Orain ez da gehiegi kanpora joaten den jende kopurua, baina gero eta ume gutxiago jaiotzen dira. Ohituta geunden mendialdean beherakada aspalditik somatzen eta azken zortzi urteetan behekaldea ere joera berdina hartzen ikustera ohitu gara.

**"Ume baten arimarekin etorri behar da Pastoralaren mundu miresgarrira"**

***— Hizkera alde batera utzirik, hegoaldeko jendeak uler dezake pastorala?***

— Giroan sartuaz gero, nik uste dut baietz. Pastorala jarraitu ahal izateko giroan sartu behar da, ume baten arimarekin etorri behar da, horrela ez dago aspertzerik. Denboratik eta logikatik kanpo dagoen mundua aurkitzen duzu, koreografiatutako munduan. Pastorala zuberotar klasikoan idatzita dago eta bada hor liburuska bat batuko grafiaz idatzitakoa. Batuan ohituta dagoenak ez du ulertzeko arazorik izaten liburuska hori eskuratuz gero.

***— Zer pertsonaia mota aukeratzen dira pastoraletan, eta zergatik aukeratu zenuen Abadia?***

— Gerlariak edo erregeak hautatu izan dira beti, orain eukal historian kulturgintzan aritutako gizonak aukeratzeko joera gainditzen ari delarik: Muskildin Oihenart idazlea aukeratu zen, Urdiñaben Iparragirre, Barkoxen Etxahun zaharra, eta nik ere kultur gizona aukeratu dut. Zergatik?, interesgarria iruditu zitzaidalako, euskaltzale, jakintsua, eta gainera herritarra zelako.

Bestalde, Abadiaren bizitzan bada berezitasun bat: bere ama irlandarra zenez, bera Irlandan jaio zen eta gero Euskadira itzuli. Hor badago paralelismo bat Euskadi eta Irlandaren artean eta beharbada Hegoaldeko jendeak Iparraldeko jendeak baino hobeto uler dezake pasarte hori.

***— Zuberotarrak ezagutzen du Hegoaldea?***

— Ez, ez du ezagutzen. Batzuk ezagutzen dugu eta gero eta gehiago dira honantz etortzen direnak, baina ez dute askorik ezagutzen.

***— Eta zaharrentzat, oraindik manexak?***

— Ez, manexak ez, espainolak. Manexak lapurtarrak eta baxenafartarrak dira. Batzuk badira horrela erabiltzen dutenak manex hitza, Zuberotar ez diren beste guztiak izendatzeko, baina nik neuk behintzat betidanik lapurtar eta baxenafartarrei buruz hitz egiteko entzun izan dut.

# Hemeretzi urte eta gero

*Maizbidek 12,22 m.ra bota zuen pisua*



Atletismoko aire zabaleko denboraldia bere azken urratsak ematen ari bada ere, ez dirudi Arrasateko atletek kontzentrazioa galdu dutenik. Joan den larunbatean, Irailak 7, Ordizian Ignacio Maizbide atleta arrasatearrak pisu jaurtiketan rekord berria ezarri zuen, 12 metro eta 22 zentimetrokoa. Aurreko rekorda 12 metro eta 20 zentimetrokoa zen, eta bere egileak, Ismael Arrietak duela hemeretzi urte ezarri zuen, 1971. ko maiatzaren 25ean.

Aparteko garrantzirik ez luke izango aurreko rekordak ez balitz kontuan hartuko Ignacio Maizbidek, pisu jaurtiketan parte hartzen zuen ia lehen aldia izan zela. Atleta honek etorkizunean egiten dituen aurrerapenei begira egon beharra dago.

Ordiziako probak pasatu ondoren Atletek berriro ere entrenatzen hasiak dira, nahiz eta Iturripe ez egon behar diren baldintzetan obrak direla eta. Obrak bukatu arte, Arrasateko atletek pistak dauzkaten herrietara joan beharko dira entrenatzera. Argi dago joan-etorriak nolabait ordaindu ahal izateko dirua ezingo dela Atleten poltsikoetatik atera eta horregatik *Aukea*k 300.000 ptako laguntza luzatuko dio Atletismo taldeari.

80 atleta federatu inguru dira Arrasateko atletismo taldean dabiltzanak, eta Zigarrolan pista berria noiz egingo duten zain daudenak. *"Iturripen ezin izango dugu gauza gehiegirik egin* -zioen Fernando Zufiria, atletismoko arduradunak- *gelditzuko den pistak 180 metroko luzera bakarrik edukiko duelako"*.



## Saskibaloia aurredenboraldian

Centraljet-Euskal Air Arrasateko saskibaloi taldeak erraztasun handiz irabazi zuen denboraldi aurreko adiskidantzako lehen partidua Beasaingo BKL Caf taldearen aurka 91-67 emaitzaz. Partidu honetarako deituta zeuden hamabi jokalariek hartu zuten parte, entrenatzaileari eskema eta sistema desberdinak probatzeko aukera emanez. Larunbatean arrasatearrek berriro ere adiskidantzazko partidua izango dute, Gasteiz taldearen aurka Aurrez, gasteiztarren taldea maila berekoa denez, zailtasunak izango dituzte arrasatearrek partidua irabazi ahal izateko.

Kabia
Altzariak
Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

MIKEL
Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa
Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

## podiuma

### Xabier Lazpiur, Deba Garaiko figura berria



Xabier Lazpiur txirrindulari atxabaltarrak afizionatu maila utzi eta datorren denboraldia profesionalen artean egiteko beharrezkoa den kontratua sinatu berri du Banesto taldearekin. Kontuan hartzen bada Xabierrek hogei urte baino ez dituela, behar bada bati baino gehiagori profesionaletara pasatzeko goizegi irudituko zaio. Ez ordea Lazpiur berari. *"Hiru urtetarako kontratua sinatu dut, baldintzak jarrita. Lehen bi urteetan nik neuk aukeratzen ditudan frogetan hartuko dut parte, gehiegi erre barik. Hirugarren denboraldirako posible litzateke itzuli luzeren batean parte hartzea. Dena den, oraindik ez daukat pentsatuta zein lasterketatan aterako naizen datorren denboraldian".*

*Beste baldintza bat ere jarri diet Banesto taldekoei, Sabin Padilla sendagilea nirekin eramatea, uste dudalako asko lagunduko didala".*

Profesional mailan zer egin ahal izango duen ez badaki, ere, baikor ageri zen Xabier Lazpiur etorkizunari begira. *"Pentsatu izan banu profesionaletan zereginik ez nuela ez dago dudarik ez nukeela saltorik emango. Badakit zaila izango dela, batez ere Banesto taldean, lanak nahiko definituak daude: momentuz taldearen lidergoa Delgado eta Indurainek daramate, Aitor Garmendia ere hor dago. Horien aurrean jartzea ez da erraza izango".*

Profesionaletan sartzea aurrerapausoa bada ere, Xabier Lazpiurrek ez du ahaztuko pasa izan behar duen bide luzea, nahiz eta asko eta askok berak baino urte gehiago daramaten bizikleta gainean. *"Ni duela sei urte hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Bi urte egin ditut kadeteetan, beste bi gazteetan , eta azken biak afizionatuetan. Iaz lasterketa bat baino ez nuen irabazi eta aurten zortzi edo bederatzi irabazi ditut. Entrenamendua eta lasterketak kontuan izanez gero, gutxi gorabehera 22.000 kilometro egingo nituen aurtengo denboraldian".*

Sei urte bizikleta gainean, orain profesionala izatekotan, baina dirudienez aspaldidanik zaletua, eta horretan familiak ere izan du zerikusirik.*"Beno, nik betidanik izan dut ziklismoarekiko zaletasuna. Beharbada Julian eta Ruben Gorospe nire lehengusuak izateak eta ziklistak gainera, lagundu dit kirola aukeratzeko orduan".*

**Bi arrasatear Euskadirekin**

Datorren asteburuan junior mailako atletismoan norgehiagoka izango da Anoetan Euskadi eta Girondins artean. Norgehiagoka horretan Aitor Arnaiz errelebotako frogan eta Aitor Urizarrek, mailu jaurtiketan,hartuko dute parte.

**Afizionatuak Bergaran**

San Martin jaiak direla eta, Bergaran igandean txirrindulari lasterketa burutuko da. Lasterketari hasiera goizeko 9etan emango zaio eta txirrindulariek 110 kilometroko ibilbidea beteko dute. Zailtasun handiena Deskargako mendatea izango da.

### Alonso EEEko Tourrean erretiratu

EEE Tourrean Enrike Alonso Arrasateko txirrindularia ez du zorte handiegirik izan. Lasterketan zihoala erori egin zen eta ondorioz min hartu. Mina handiegia zela eta arrasatearrak ez zuen bizikleta gainean jarraitzerik izan.



egizabal

Bidekurutzeta 13
BERGARA

Elisabete

# Txerokee zaharraren omenez

## "MIkel Laboaren kantak". Elkar/IZ. Talde ezberdinen bertsioak

Musikari edo talde anitzen lanez osatutako diskoak beti izaten dira irregularrak, eta disko hau ez da salbuespena. Ikustea besterik ez dago partaideen zerrenda: *Su ta Gar, Negu Gorriak, Bukaera, Pottoka, Kiowak, Angel G.K., Karkaxa, Delirium Tremens, Bap, M-ak eta Tapia eta Leturia.* Musika estilo horiekiko duen aurreritziak baldintzatuko du, beraz, bertsio bakoitzaren balioari buruzko judizioa. Nire aldetik, esan dezadan onak aurkitu ditudala *Negu Gorriak, M-ak* eta *Delirium*-en bertsioak, agian talde profesionalenak eta helduenak direlako. Interesgarria iruditu zait, baita ere, *Angel G.K.*rena, behar bada euskal musikan oso ohizkoa ez den bidea urratzen duelako, musika elektronikoarena hain zuzen. Eta batez ere, guztien gainetik, *Tapia eta Leturiak* egin duten popurria, kanta ezberdinen zatiak korapilatuz, eta Laboak hain maiteak dituen ahots eta zaraten zipriztinak han eta hemen ezarriz. Bikote honek argi erakusten du hemen ere, zenbaiteraino gai diren trikitiari orain arte ukatu zaizkion esparruetan aritzeko, eta zenbat espero daitekeen beren ausardiaz.




Dena den, diskoaren mamia baino diskoa bera da inportanteago. Euskal musika gaztea aurreko belaunaldienari bizkarra emanda ibili da urte luzez, baina badirudi penduloak (ez Foucault-enak baizik eta musikarenak) bueltako bidea hartua duela eta ez dut uste lan hau bakarra eta azkena izango denik. Euskal musika gaztearen oinarriak sendoak dira dagoeneko, eta ez dago jadanik lehengoaren ukazio itsuan segitzeko arrazoirik.

Dudarik gabe, Laboa zen hurbiltze-prozesu horretan lehenbizi berreskuratu beharrekoa. Bera bait da, bere zaharrean, txerokee-en artean txerokee-ena, eta zaharren artean gazteena.

Azala, berriro ere, Zumetarena. Eta berriro ere, azpimarragarria, zinez ederra.

*Mikel Irizar*

aek

EUSKARA LANDUZ
EGUNEZ EGUN

Erdu-AEK

Matrikula zabalik!!!

Maila guztiak, EGA eta Alfabetatzen

*ARRASATEN: Erdiko kale 28, 1. Tfnoa: 79 71 12*
*BERGARAN: Barrenkale 18, 1. Tfnoa: 76 54 11*

Bulego orduak: 10etatik 1era eta 4etatik 8etara
Epea 28an bukatzen da

izan euskaldun!

aek

# GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA




**Garibai etxea**

Ordutegia: **goizez 11etatik 1era**
**arratsaldez 5etatik 7etara**

Tfnoa: **77 00 65**

**Hemendik aurrera:**

# *KONTZIENTZI ERAGOZPENARI BURUZKO INFORMAZIO ZERBITZUA*




**astelehena eta astearteetan**
**5.30etatik 7etara**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

# Berriro hasi behar!!

Uda, oporrak, ametsak ... joan egin dira. Iraila heldu da; eta irailean lanera bueltatzea, eskolara bueltatzea, agian azterketak egin behar izatea, eguneroko gauzetara bueltatzea. Zein ondo! askorentzat. Edo zein gaizki! beste askorentzat. A, erlojua gelditiko balitz...!

Gehienontzat eguneroko errealitatearekin topo egitea da iraila. Eta sarritan errealitate hori gogorra da,... edo agian polita, itxaropenez beterik, oporretako edertasuna luzatu nahi bait dugu.

Errealitate horren zati bat eskolaren hasiera da. Askatasuna!! oihu egiten dute batzuk. Iraila madarikatua!! beste hainbatek.

Ikasturte-hasiera proiektuen garaia izaten da beti. Eta proiektuak bete egiten dira ondo diseinatzen baldin badira.



Horretarako, atzera begiratu behar: aurreko ikasturtean zernolako oztopoak aurkitu nituen; edo zertan izan zen atsegina; nondik joan zitzaidan ondo, edo gaizki. Horrela, akatsak ebitatu, eta lorpenak sendo daitezke.

Eta aurrera ere begiratu egin behar: zer egin behar dut, zeintzuk dira nire posibilitateak, zeintzuk nire mugak, nondik joango naiz hobeto.

Eskolari begira, hasten direnean, haurren ondoan egotea ona litzateke: guretzat inportanteak direla, beraietaz arduratzen garela eta oztopoak dituzten uneetan laguntzen diegula ikus dezaten.

Sarritan liburu berriek, hamaika koloretako forro eta kuadernoek, arkatz berriek, motxila edo txandal berriek ez digute ikusten uzten hazten ari den eta bere ondoan egoteko eskatzen digun ikaslea dagoela gure aurrean.

Agian helduentzat ere estimuloa da hori: inportanteak garela esaten digu eta gure buruari helburu berriak jartzen laguntzen digu.

*Klarion taldea*

Otxandioko
MUSIKA BANDAREN
kalejira eta
KONTZERTUA

Irailak 15, larunbata
Arratsaldeko 8etan
MONTERRON PARKEAN

Arrasateko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Alkohola eta gaztetxoak (IV)

Azken aste hauetan alkoholaren arazoa ondo jorratu dela esan genezake, baita hainbat datu aztertu ere. Gaurkoan berriz gure inguruko alkoholismoaren aurka jokatzeko izan litekeen planaren xehetasun edo argibide batzuk eman nahi genituzke.

1. Gure inguruko gizartea alkoholtzalea denez, derrigorrezkoa da prebentzio kanpainak bultzatzea, behin betirako alkohola drogatzat hartua izan dadin, eta era berean, alkoholismoa senda daitekeen gaixotasuna dela jakin eraziz. Baina problema larri batekin topo egiten dugu: agintari, administrazio eta osasun profesional askok oraindik ez dutela argi alkohola droga dela.

2. Informazio ugariago eta sakonagoa eman beharra dago irakaskuntza eta osasun profesionalei, ez bakarrik edateak dakartzan ondorioak argitzeko, baita prebentzio-lana eta problematika honen tratamendua ere.




3. Informazio zabala droga-alkoholari buruz ikasleen inguruneetan.

4. Baita biztanleria guztiari ere (guraso, gazte, etab-i) zuzendutako kanpainen bitartez.

5. Diru aldetik dotazio handiagoa prebentzioa aurrera eramateko eta era berean, leku edo zentru apropoak tratamenduak egiteko.

6. Osasun-zentruen aldetik aditasun handia alkoholaren problematika bereziarentzat, eta ez bakarrik gaixotasun honen ondorio somatikoak kontuan izanda.

Soziologo asko dira haurren interesei erantzunik ez ematea leporatzen diotenak egungo hezkuntz sistemari, hau da, ez dituela bizitzarako behar bezala prestatzen esaten dute.

Beste batzuren eritziz, berriz, gurasoak dira seme-alabentzat mundu zoriontsu baina irreala sortzen dutenak, bizimodu normala bazterrean utzita; honela, mota guztietako frustrazioak uxatzen dizkiete seme-alabei.

Dena dela, guztiok gara errudun neurri handi edo txikiagoan. Ez da, ordea, garrantzitsuena errudunak bilatzen saiatzea, soluzioak aurkitzea baizik!

*Eukeni eta Arantza*



# Bizikletan bidaiatzen

Urte osoan espero izan ditugun egunak eman ditugu nola edo hala, inguruan edo hemendik urruti samar. Eguraldia ere lagun izan dugu bizikletan ibili garenok: batzuk maletak hartu eta abiatu ginen, beste batzuk bizikletak eroan eta bertan, camping-ean edo apartamenduan, bazterretan ibiltzeko.

Denok helburu zehatza izan dugu: bizikletan gozatu, paseatu eta denbora eman lasai-lasai eta inguru-giroa hobeto ezagutu.

Ezagutzen ditut Arrasatetik Lourdes-eraino joan direnak, Eibartik Bretañaraino, Hendaiatik (mendiz) Euskal Pirineoetan zehar, Belagua ingururaino.

Beste hainbatek parrillan ezarri bizikletak eta Lourdes-era: inguruko zeharbide, bidezidor eta abar zeharkatuz. Beste batzuk bizikleta


Landasetako bideak

berriak erosi eta opor egunak Pirineotan eman dituzte.

## Landetako bideak

Gonparatzea txarra dela esan ohi da, baina ingurune honetako egoera aipatzekoa da. Baionatik aurrerako herrietatik barna, bizikletan ibiltzeko guneak ikusiko ditugu; batzuk bide bazterrean eta beste batzuk, bidetik at, egundoko bidea, asfaltatua eta lau laua. Zoragarria benetan!. Eta Leon herritik aurrera edo, kostaldeko "pista ciclable"ak ikusiko ditugu: mapetan bidegorria agertzen da. Pinadi artean aurrera eta aurrera, bide estu baina zoragarrian zehar.

Baina orain hemen "geureare-kin" konforme egon behar, ezta? Ea, ba laster Arrasaten eta Leintz Bailara osoan bizikletan eta oinez ibiltzeko bideak egiten dituzten. Trenbide zaharra edo ingurua aprobetxa genezake: Eskoriatza-Bergara-Oñati-Arrasate eta Aramaio lotzeko.

Arrasaten saihesbidea egin digute baina bizikletari eta oinezkoentzat ezer gutxi. Uste dot ordua dala zeozer egiten hasteko.

Ohartxoa: baten batek bizikletan ibilaldiren bat egin badau, eskertuko neuskio neuri deitzea hona bertara bulego-orduetan.

*K. U.*


# HIRU S. A.
# MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74 AGURAIN

# Zabalik

## Arrasaten, inprimaketa azkarra eskeintzen duen denda berria




fasprint

fasprint

fasprint

fasprint

## fasprint

**zerbitzuak**

- Tirada txikietan espezialduriko inprimategia.
  - Bisita txartelak
  - Gonbidapenak
  - Lehenengo eta hurrengo orriak
  - Albaranak
  - Fakturak
  - Kartazalak
  - Foileto eta kartelak
  - Karpetak
- Inprimaketaren osagarriak.
  - Azaleztapenak
  - Telefaxa
  - Aurrediseinuak
  - Eurokalkoa
  - Koloretako eta zuri-beltzeko fotokopiak egiten dituen, Deba Garaiko lehendabiziko denda
  - Autoedizioa
  - Grapaketa
  - Zulaketa
  - Plastifikaketa

**abantailak**

- Offset sistema, kalitate goreneko erreprodukzioak, beraz
- Denda izaera, hurbiltasun eta harreman zuzena eskeiniz
- Prezio egokiak tirada txikietan
- Bizkortasuna ( emanaldi epea 48 ordu )

Zure zerbitzura irailaren 14etik aurrera

**fasprint**
**Inprimaketa denda**
Arrasate Pasealekua, 2
Telf. 77 06 11
Fax. 77 09 86
20500 Arrasate



*Aste gazte*

**"Esperientzia eza edo esperientziarekiko zalantza, horixe da gazte izatea"**

Eduardo Chillida

### *Dirulaguntzak*

• Arrasateko Udalak gazte-taldeei onartutako dirulaguntzen bigarren partea jaso ahal iz[illegible] irailera arteko memoria a[illegible] behar dela gogorarazten da.

### *Lehiaketak*

• Maritxu Kajoi Jantzi-Diseinuaren I. Lehiaketa. Diseinuak emakumezkoenak zein gizonezkoenak izan daitezke. Sariak: 100.000, 50.000 eta 25.000 pta. eta oroigarrizko plakak. Izena emateko azken eguna: irailak 19.

• 'Gure Artea 90' Sariak. Modalitateak: a) Pintura (sariak: 1.000.000, 500.000 eta 350.000), b) Eskultura (sariak: 1.000.000, 500.000 eta 350.000), c) Grabatua (sariak: 500.000 eta 300.000) eta d) Argazkigintza (sariak: 200.000, 125.000 eta 75.000). Lanak aurkezteko epea: irailaren 24etik 28ra arte.

• Gazteentzako literatur lehiaketa. VI. edizioa. Gipuzkoako 16tik 25 urtera bitarteko gazteentzat. Euskaraz nahiz gazteleraz. Sariak: 125.000 pezetako hiru sari hizkuntza bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea: urriak 31.

• 'Muñoz Molleda' II. Piano-lehiaketa Nazionala. 26 urtetik beherako pianistek har dezakete parte. Sariak: 1.) Piano bat, 150.000 pta., kontzertua eta plaka. 2.) 75.000 pta., kontzertua eta plaka. 3.) 50.000 pta., kontzertua eta plaka. Izena emateko azken eguna: azaroak 15.

### *Bekak*

• Postgraduatu euskaldunentzat formazio bekak. Lana: Euskal Herriko Unibertsitatean, euskararen normalizazioaren alorrean. Iraupena: urtebete. Diru kopurua: 1.000.000 pta. Epea: 90-9-21.

• 'Pablo Gargallo' Eskultura saria. 35 urtetik beherako eskultoreek har dezakete parte. Sariak: 800.000 pta. eta 300.000 pezetako akzesita. Aurkezteko epea: abenduaren 15era arte.

• 'Jeans Art. 90: Vivir en el asfalto' Lehiaketa. 15 eta 25 urte bitartekoentzat. Modalitateak: pintura, eskultura, grafitti, collage, komikia eta argazkigintza. Sariak: modalitate bakoitzeko 100.000 pta. (parte hartzaile guztiek sari bana jasoko dute). Lanak aurkezteko epea: urriaren 31a baino lehen.

• 'Osborne' IX Pintura Lehiaketa. Gai librea. Sariak: 300.000 pta. eta bi akzesit. Lanak aurkezteko epea: urriaren 15era arte.

### *Ikastaroak*

• Arteleku: ' Argiaren espazioa' Argazki tailerra. Arduraduna: Javier Vallhonrat. Urriaren 15etik 19ra. Goiz eta arratsaldez, ikastaro trinkoa. Matrikula 7.000 pta. Plaza mugatuak. Aukeratu egingo da. Izena emateko azken eguna: urriak 5

• Arteleku: Litografia ikastaroa. Arduraduna: Don Herbert. Azaroaren 12tik Urtarrilaren 20ra (astelehenetik ostegunera, arratsaldez). Matrikula: 24.000 pta. Plaza mugatuak. Aukeraketa egingo da. Izena emateko azken eguna: azaroak 2.

• Hizkuntz departamendua-UNED: ikastaro trinkoa, edo astean bost orduko ikastaroak. Maila guztiak. Matrikula epea: irailaren 20ra arte.

***Informazio gehiago: Gazte Zerbitzuan, 77 00 65***


**ETORKIZUNERAKO PRESTATUKO ZAITUGU ETA ATSEGIN IZANGO DUZU!**

Klase praktikoak
